mapaketa / kultura / elkarlanekoa /
harreman berriak / premiak /
ibilbidea / gerturatzea



abstract español

# amara bai

## amara bai auzo elkartea + mikel morlas



mapeo / cultura / colaborativo / nuevas relaciones / necesidades / itinerario / acercamiento


El AuzoLab de la Asociación de Vecinas y Vecinos Amara Bai es el resultado de una convocatoria impulsada por DSS2016EU.

La asociación tiene como objetivo fundamental dinamizar aspectos culturales y sociales del barrio así como ser un instrumento que vele por los intereses de los colectivos de Amara. Por ello, se plantearon como reto, la **redefinición y desarrollo de una dinámica cultural** del barrio donostiarra.

Las personas que participaron en el AuzoLab de Amara Bai fueron fundamentalmente integrantes de la asociación. Además, consiguieron la participación de habitantes del barrio de Amara. Por su parte, el "diferente" elegido por el equipo organizador de los AuzoLabs fue Mikel Morlas, un creador que reside en Cataluña y que ha colaborado en diferentes ocasiones en proyectos desarrollados por la Plataforma Conexiones improbables. Morlas tiene un perfil académico multidisciplinar y combina el desarrollo de proyectos de innovación educativa y formativa en organizaciones públicas y privadas con una actividad como artista y comisario.

En septiembre de 2014 arrancó el proceso con la celebración de la Sesión de Metodología en la que se introdujo una **reflexión sobre cómo abordar un proceso de innovación, con qué herramientas y con qué actitud afrontarlo**.

El proceso de trabajo se orientó a la **obtención de información que permitiera a Amara Bai diseñar un proyecto cultural para el barrio**. Y ello teniendo como fundamento que la metodología tenía que ser participativa y fomentar la apertura de los procesos de Amara Bai, con el fin de ampliar la visión de la asociación y propiciar un mayor acercamiento a las personas que viven en el barrio.

De esta forma, se creó un **dispositivo de mapeo colectivo** que ha permitido:

- **Recoger información** sobre lugares, eventos, personas y entidades, además de expectativas y deseos, que contribuyen a crear cultura en el barrio de Amara.
- **Identificar itinerarios culturales** posibles en el barrio que responden a la diversidad de sus habitantes.
- Establecer una **nueva forma de acercamiento** a vecinas y vecinos más creativa y desenfadada que las llevadas a cabo de forma habitual por la asociación. Este nuevo modo de relación permitirá establecer conversaciones con una actitud más proactiva que reactiva, buscando provocar emociones positivas.

Tras la celebración del AuzoLab, Amara Bai Auzo Elkartea ha comenzado la **elaboración de un documento** que recogerá los ejes fundamentales del proyecto cultural.


english abstract

# amara bai

## amara bai auzo elkartea + mikel morlas



mapping / culture / collaborative / new relationships / needs / itinerary / approach


The Amara Bai Neighbourhood Association (Amara Bai Auzo Elkartea) AuzoLab was the result of a DSS2016EU call.

The main aim of the Association is to enliven cultural and social aspects of the neighbourhood, as well as acting as a tool to ensure the interests of collectives in Amara. The Association's challenge was therefore **to redefine and develop cultural dynamics** in the San Sebastián neighbourhood.

The people who participated in the Amara Bai AuzoLab were mainly Association members. They also managed to attract the participation of Amara neighbourhood residents. Meanwhile, the "different other" chosen by the AuzoLab organisational team was Mikel Morlas, an artist living in Catalonia who has collaborated on several occasions in projects conducted by the Conexiones improbables platform. Morlas has a multidisciplinary academic background that combines the development of educational and training innovation projects in public and private organisations with his activities as an artist and curator.

The process began in September 2014 with the holding of the Methodology Session, in which **consideration was given on how to tackle an innovation process, with what tools and with which attitude to confront it**.

The work process was aimed at **obtaining information that would allow Amara Bai to design a cultural project for the neighbourhood.** The basis of this was that the methodology had to be participatory and encourage the opening up of Amara Bai's processes in order to broaden the scope of the Association and foster a closer connection to the people residing in the neighbourhood.

A **collective mapping device** was thereby created to help:

- **Collect information** about places, events, people and entities, as well as expectations and desires, in order to contribute to creating culture in the Amara neighbourhood.
- **Identify possible cultural itineraries** in the neighbourhood that reflect the diversity of its inhabitants.
- Establish a **new**, more creative and uninhibited **way of approaching** neighbours than those normally carried out by the Association. This new manner of relating will help to establish conversations with a more proactive rather than reactive attitude in order to provoke positive emotions.

Following the conclusion of the AuzoLab, the Amara Bai Neighbourhood Association began drafting a document that will contain the cornerstones of the cultural project.



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA

BIZITZA
VIDA
LIFE

CONEXIONES improbables
SLOW INNOVATION


auzo**lab**
amara bai



# amara bai

## amara bai auzo elkartea + mikel morlas

| | |
|---|---|
| **ABIAPUNTUA** | Amara auzoan kultur dinamika birdefinitu eta garatzea. |
| **METODOLOGIA** | Mapaketa kolektiboa. |
| **AUZOLAB MOTA** | Deialdi Irekia. |
| **INPLIKATUTAKO KOLEKTIBOA** | Amara Bai Auzo Elkartea. |
| **NOIZ EGIN DEN** | 2014ko iraila-abendua.<br>Emaitzak 2014ko abenduaren 4an aurkeztu ziren. |
| **NON EGIN DEN** | Amara Bai Elkartearen lokaletan, DSS2016EU-ren egoitzan, Amarako plaza eta kaleetan. |

**ABIAPUNTUA**

AuzoLab hau DSS2016EU-k bultzatutako deialdiaren emaitza da. Deialdi hori 2014ko uztailean egon zen zabalik. Aurkeztu ziren 4 proposamenetatik Amara Bai Auzo Elkartearena izan zen DSS2016EU eta Conexiones improbables Plataformako kideek osatutako epaimahaiak aukeratu zuenetako bat.

Aukeraketarako erabili ziren irizpideak hauek izan ziren: alde batetik, taldearen kohesioa eta emaitzak garatzeko taldeak zuen gaitasuna, eta bestetik, emaitza horiek beste kolektibo batzuk (deialdira aurkeztu zirenekiko desberdinak) aprobetxatzeko aukera. Elkartearen xede nagusia da auzoko alde kultural eta sozialak dinamizatzea, eta baita Amarako kolektiboen interesak zainduko dituen tresna izatea ere. Horretarako, erronka gisa, Donostiako auzo horretako **kultur dinamika birdefinitu eta garatzea proposatu zuten**.

**PROZESUA**

2014ko irailaren 30ean egin zen Metodologia-saioa; sarrera-jardunaldi horretan, Amara Baik hainbat jarduera landu zituen Berreibar-eko parte-hartzaileekin batera. Berreibar izan zen AuzoLab-en deialdi irekian aukeratutako beste proiektua. Saio hori bi helburu nagusirekin egin zen: alde batetik, parte-hartzaileak elkar ezagutzea, eta batak besteari ekarpenak egitea; eta bestetik, **berrikuntza-prozesu bati heltzeko moduen inguruan hausnarketa egitea, prozesu horri zein tresna eta jarrerarekin egin aurre**.

3 lan-saio egitea erabaki zen, elkartearen lokaletan zein 2016 Espazioan.

1


2


**1.** Mikel Morlas “desberdina” AuzoLab-aren emaitzak aurkezten. **2.** Amara Bai Auzo Elkarteko kide bat AuzoLab-aren prozesua azaltzen.

amara bai auzo elkartearen auzolab-ak donostiako auzo horretako kultur dinamika birdefinitu eta garatzeko egin du lan.

**PARTE-HARTZAILEAK**

Amara Bai-ren AuzoLab-eko parte-hartzaileak elkarteko kideak izan ziren batik bat, baina Amara auzoko bizilagunen parte-hartzea ere lortu zuten.

| | |
|---|---|
| Harkaitz Aranburu | Jon Lakunza, |
| Sergio Beorlegi | Itziar García |
| Koro Gorrotxategi | Mikel García |
| Juan José Mas | Xabier Altuna |
| Ana García | Koldo García |
| Joserra Larrea | Mikel Vargas |
| Ana Mendizabal | Amarako bizilagunak |

**DESBERDINAK**

2014ko irailean, AuzoLab-en antolatzaile-taldeak, “desberdin” bat aukeratu zuen Amara Bai-ren proiektuarentzat: **Mikel Morlas**. Sortzaile hori Katalunian bizi da eta hainbat aldiz kolaboratu izan du Conexiones improbables Plataformaren proiektuetan. Mikel Morlasek diziplina anitzeko profil Akademikoa dauka (giza baliabideen, artearen eta hezkuntzaren kudeaketa) eta jardute artistikoa duten hainbat kolektiborekin egin du lan. Hezkuntza eta prestakuntzako berrikuntza-proiektuak garatzen ditu erakunde publiko eta pribatuetan, eta artista eta komisarioa ere bada. http://presinuo.eu

**EMAITZAK**

Lan-prozesua **Amara auzorako kultur proiektu bat diseinatzeko informazioa lortzera** bideratu zen. Oinarri gisa hartu zuten metodologiak parte-hartzailea behar zuela izan, eta Amara Bai-ren prozesuen irekiera bultzatu beharko zela, elkartearen ikuspuntua zabaldu eta auzoko bizilagunengana gerturatze handiagoa bultzatzeko.

Gauzak horrela, mapaketa kolektiborako gailu bat sortu zen, ondorengoak egin ahal izateko:

- Amarako auzoan kultura sortzen lagundu dezaketen toki, gertaera, pertsona eta erakundeen inguruko **informazioa biltzea**, eta baita itxaropen eta desioena ere.
- Auzoko bizilagunen aniztasunari erantzungo lioketen **kultur ibilbideak identifikatzea**.
- Bizilagunengana **gerturatzeko modu berriak ezartzea**, elkarteak egin ohi dituen moduak baino sortzaileagoak eta ausartagoak. Harreman-mota berri horren bitartez, hizketaldiak, jarrera erreaktiboarekin beharrean, jarrera proaktiboagoarekin egin ahal izango dira, emozio positiboak bilatze aldera.

**ETORKIZUNA**

AuzoLab-a egin ondoren, Amara Bai Auzo Elkartea kultur proiektuaren oinarriak bilduko dituen **dokumentua lantzen** hasi da.

Bestalde, Amara Bai-ren kultur proiektuaren irudikapen formaletik eta, kualitatiboki edukien garapenetik harago, AuzoLab-aren bitartez Elkarteko kideek modu ezberdinean egin ahal izan diete aurre harremanei eta esku-hartzeei espazio publiko eta komunitarioetan. Horrez gainera, artetik aktibismora arte doazen ikuspuntuak, alternatibak eta estrategiak ezagutu ahal izan dituzte, Amara auzoko kultur egoerarekin puntu komunak dituzten testuinguruetan.

mapaketa kolektiborako gailu baten bitartez kultur ibilbide eta premiak, eta herritarrekin erlazionatzeko modu berriak identifikatu ziren.

3


4


5


**3.** Herritarren parte-hartzearekin egindako Amarako kultur jarduera eta premien mapa. **4.** Amara Bai Auzo Elkarteko kidea. **5.** AuzoLab-aren saioetako bat.

**ZER DA AUZOLAB BAT?**

Beren jarduteak birpentsatu eta komunean jarduteko modu ezberdinak irudikatzeko elkartutako pertsona-talde bati aplikatutako metodologia da. Identifikatutako premientzat erantzunak bilatzeko adimenak elkartzeko desioak batzen ditu eta artista edo sortzaileen (“desberdinak” deiturikoak) laguntza izaten dute. “Desberdinek”, taldeari, aniztasuna eta beste pentsamendu mota bat eskaintzen diote, prozesuak dinamizatzen dituzte eta emaitza sortzeaz arduratzen dira. Ez da ohiko hiritarren parte-hartze prozesua, baizik eta jarduteko esparru berriak bilatu eta ingurunea eraldatzea du xede. Eta hori guztia c2+i/Conexiones improbables-en metodologiarekin eta jarraipenarekin.

3 AuzoLab mota daude:

- Bere erronkari aurre egiteko “desberdin” baten laguntza nahi duen kolektibo batek proposatutako premiatik sortutakoak.
- Beste erakunde batzuekin etorkizun berriak eraikitzeko “desberdin” baten laguntza nahi duten gizarte-erakundeetatik sortutakoak.
- DSS2016EU-k proposatutako erronketatik sortutakoak; DSS2016EU-k desberdin batek dinamizatzen dituen talde heterogeneoak sortzen ditu.

www.conexionesimprobables.com
auzolab.dss2016.org